



2018eko AZAROAREN 20KO BILKURAKO AKTA

Bilkura : Ohikoa

Eguna: 2018/11/20

Ordua: 19.00etan

Deialdia: Lehenengoa

Bilduak:

Olatz Iriarte Argaya. Alkatea

Mikel Telleria Irastorza . Zinegotzia

Ane Garmendia Gorostidi.Zinegotzia

Jokin Garmendia Etxeberria.Zinegotzia

Luis Lopez Garcia Uceda .Zinegotzia

Idazkaria: Nekane Lopetegi

GAI ZERRENDA

- 1.-2018-10-30 bilkurako akta onartzea , hala balegokio .
- 2.-San Juan bidean eta Mimendin egindako zoladura lanen likidazioa onartu eta Mimendiko atariaren likidazioa ere onartu bidali ahal izateko .
- 3.-Lopetegi inguruan dauden zenbait lan burutzeko eskatutako aurrekontuaren berri azaltzea.
- 4.-Guraso elkartearen eskaera aztertu eta dagokiona erabaki .
- 5.-Ministeritzarekin dagoen bilera prestatzea.
- 6.-Alkatearen ebazpenak
2018/39panelfisari lokala uztea
2018/40, eta 41 ...gael elkarteari pilotalekua uztea
- 7.-Galderak eta eskaerak .

1.-2018-10-30 BILKURAKO AKTA ONARTZEA HALA BALEGOKIO .

Alkateak bilerari hasera eman ondoren, 2018-10-30ko Bilkurako aktaren izenburuak irakurri eta komentatu dira. Alkateak galdetzen zerbait zuzentzeko ikusten den. Mahaikide guztiak ados agertu dira eta dagoen bezala onartuta geratu da.



2.-SAN JUAN BIDEAN ETA MIMENDIN EGINDAKO ZOLADURA LANEN LIKIDAZIOA ONARTU ETA MIMENDIKO ATARIAREN LIKIDAZIOA ERE ONARTU BIDALI AHAL IZATEKO .

San Juan bidearen eraberritze lanetarako diru laguntza eskatua zen Aldundiako Nekazaritza departamentuko Lurralde orekako zuzendaritzari, eta beraiek zegokion diru laguntza onartu zela jakitera eman zen. Halere diru laguntza 2019 urteko aurrekontuaren gain onartu zen.

Baliarraingo udalean, Saneamenduko lanak direla eta San Juan bidea erabili izan denez, Baliarraingo udala, zenbait eraberritze lanak aurreratzea behartuta aurkitu da.

San Juan bidearen erabilera zela eta Asfaltos Urretxukoarekin hitzegin zenean, 1121m² etako aktuazioa neurtu zen eta, hori gauzatzeko, Udala eta Altuna Y Uria enpresa, Baliarraingo saneamendua burutu duena, akordio batetara iritsi ziren.

Altuna y Uriak egindako kalteak zirela eta 402 m² etako aktuazioa egin behar zuten. Udalak 600 m² beregain hartzea eskatu zion, udalak aparkalekuan kasetak jartzea utzi ziolako eta aldi berean herriko komonak erabili dituztelako.

Altuna yUriak hasera batetan ez zuen onartu baina azkenean, 502 m² bere gain hartuko zituela onartu zuen.

Altuna y Uriak lan hau Asfaltos Urretxuri egiteko eskatu zion eta udalak ere, bide batez, berarekin hitz egin zuen, prozedura berri bat hasi ordez.

Orain lanak amaitu dira eta egindako lanaren balioa, beza barne, 13.001,62 eurotakoa da.

Lan honen barruan, Mimendi baserriko ataria ere, Altuna y Uriak lehen zegoen bezala uzteko betebeharra zuen. Mimendiko baserriko jabeak aditzera eman zuen, lehen zegoen bezala utzi ordez brearekin egitea eta gera daitekeen aldea bere gain hartuko zuela. Horregatik, ondorengo likidazioa prestatu zaio Mimendi baserriko jabeari:



MIMENDI BASERRIKO ATARIAREN ZOLADURA LANEN LIKIDAZIOA

Baliarraingo saneamendu lanen lehen fasea amaiturik , Udalak Altuna Y Uria enpresarekin egindako akordioen arabera , honela geratu zen :

Lan guztien balorazioa egin ostean, %45ena ardura Altuna y Uriak hartuko zuela, egindako kaltea horretan baloratzen zuelako eta bestea, % 55 udalak eta partikularrak bere gain hartzea.

Mimendiko baserriaren atarian , guk egindako neurketaren arabera , 93,50 m2 daude eta horren %55a da jabearen gain izango litzatekeena .

Horretarako, Asfaltos Urretxu etxeak luzatu duen fakturan ikusi dezakezu, udalaren gain egin den zoladuraren zenbatekoa 619 m2 izan direla .

Beraz, Mimendi baserriko jabeari dagokion ordainketaren kalkulua era honetara egin da :

93,50 m2 X 11,40 €....	1.065,90€...	%55 a	586,24 €
93,50 m2 X 0,66 €.....	61,71€...	%55 a.....	33,94 €

Beraz , zuri dagokizun ordainketaren oinarria620,18 € dira.

Argibide gehiago nahiko bazenitu, udalean emango zaizkizu.

Guztiaren berri eman ondoren ERABAKI DA:

- 1.-Asfaltos Urretxuk aurkeztu duen faktura 13.001,62 eurotako onartzea eta ordaintzea.
- 2.-Mimendi baserriko jabeari likidazioa igortzea .

3.-LOPETEGI INGURUAN DAUDEN ZENBAIT LAN BURUTZEKO ESKATUTAKO AURREKONTUAREN BERRI AZALTZEA.

Lan hauen aurrekontu bat jaso da eta mahaiean aurkeztu da. Beste aurrekontuak falta direla eta gaia beste batetan aztertzeke utzi da.



4.-GURASO ELKARTEAREN ESKAERA AZTERTU ETA DAGOKIONA ERABAKI.

Baliarraingo guraso elkarteak, 2018eko azaroaren 16ean, Udaleko balioanitzeko ludoteka gela erabiltzeko eskaera luzatzen dute. Erabilera, astelehenetik ostiralera 16:15etatik 18.30etara izango da. Eta eskaera orriarekin batera, zartagi.ge@gmail.com posta elektronikotik 2018eko azaroaren 19ean udalera idatzi bat zuzendu dute. Idatzian bertan aipatzen da:

- .-Herrian 12 urtez behekoak 36 ume daudela eta gaur eguneko lokala, udaletxeko behe oinean dagoena, txikia geratzen dela.
- .-Haurreskolako arduradunekin hitz egin dutela eta, beraien adostasunarekin zuzentzen direla.
- .-Lanegunetan bakarrik erabiliko dutela 16:30etatik 18:00etara.
- .-Lokalaren erabiltzaileak herritarrak izango dira eta haurrak gurasoekin egongo dira.
- .-Uda sasoiari udaleku zerbitzurako izango dela.
- .-Lokalaren eguneroko garbiketa gurasoek egingo dutela, eta udalak garbiketa orokorra.
- .-Lokalaren garbiketa, berogailua eta argi indarraren gastuetaz udala arduratuko dela.
- .-Bertan dauden mahaiak lekuz aldatzea eskatzen dute.
- .-Material berria sartzea guraso elkarte arduratuko da.
- .-Sarrerako txartelaren kopia bakarra eskatzen da eta horretaz guraso elkarte arduratuko da.

Eskaera honen aurrean, aipatzen den lokalaren erabilera Baliarraingo haurreskolak egiten du, gaur egun, 2017eko urtarrilaren 17ean Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren arabera. Osoko Bilkura horretan, haurreskola, gurasoak eta udalaren ordezkarien bertan izanik adostutako puntuak jasotzen dira eta berronesten dira, ondoren adierazten den terminoetan:

“Haurreskolako gurasoen ordezkariak eta irakasleak, balio anitzeko lokalaren erabilera eskatu dute. Erabileraren arrazoia pedagogi sistemarena da, haurreskolako irakasleak eguneroko jardueran, landu nahi dituen jarduerak burutzeko gunea berria behar duelako.

Korporazio kideek gai honen inguruan egindako bileran, hainbat puntu adostu dituztela eta puntu hauek haurreskolako irakasleari azaldu dizkiotenez, akta honetan jasotzea erabaki da.



Adostutako puntuak hauek izan dira :

BALIO ANITZEKO GELA HAURRESKOLAREN BEHARRETARAKO ERABILTZEKO BALDINTZAK

- Gela erabiltzeko ordutegia goizez izango da. Arratsalderako dena jasota eta garbituta utzi beharko da, herrian egiten diren beste ekintzak gela honetan egin ahal izateko.
- Printzipioz, ekaineko azken asterarte erabili ahalko da. Ekainaren azken astean eta uztailean gela hutsik eta jasota utzi beharko da, udako ludoteka bertan egin ahal izateko.
- Udalak beste edozein ekintza egiteko gela honen erabilera beharko balu, astebete lehenago abisatuko zaio haurreskolako arduradunari, eta astebeteko epean gela utzi beharko dute.
- Gela erabili ondoren, garbi eta txukun utzi beharko da. Garbiketa hau haurreskolak egin beharko du.
- Kalefakzioa eta argiaren erabilera arduratsua egitea eskatzen da.
- Haurreskolako arduradunari txartel bat eta bakarra emango zaio, kanpoko atletik gelara igarotzeko. Ekaineko azken astean, gela uztearekin batera, txartela udalean utzi beharko da. Igogailuko giltza ematea ez da beharrezko ikusi.
- Haurreskolako haurrak erabiliko dituzten komunak haurreskolakoak izango dira, ez beheko lokaletakoak.
- Gaur egun beste almagazetan dagoen materialaren txukunketa egitea eskatzen da eta behar den material guztia balio anitzeko gelaren ondoko almagazetan txikiko alde batean gordeko da, horrela beste almagaza libre utziz. “

Mahaikideek guztiaren berri jakin ondoren **ERABAKI DUTE** :

BAT.- Baliarraingo haurreskolako arduradunari jakinaraztea eta bere aldetik, oniritzia jasotzea .

BI.- Guraso elkarteak eskatzen duen lokalak izango duen erabilera gaur egun , udaletxeko behe solairuan dagoen lokalak betetzen du. Gaur egun funtzioa betetzen duen lokal honetara herritar guztiak iristeko aukera dute eta lanegunetan bakarrik izan ordez , beste egunetan ere. Horregatik , bidezkoa ikusten da, gaur egun dagoen lokalak betetzen



dituen helburu guztiak, eskatzen den lokalak ere betetzea. Eta horretarako behar diren moduak aztertzea.

Eta lokal honen erabileraren lehenetasuna , lehenengo haurreskolak izango du , bere ordutegiaren barruan eta gero , arratsaldeko orduetan guraso elkarteak eta herriko hurrek izango dira. Beraz , lokala elkar banatuta izango da.

HIRU.-Garbiketaren ardura Harkaitz elkarteak du , udalak utzitako lokalaren alokairu ordez , garbiketa egiten duelako . Eta harkaitz elkarteari erabileraren berri emango zaio .

LAU.-Lokalaren erabiltzaileak , udaletxeko komunak edo komun publikoak erabili beharko dituzte .

BOST.-Erabakiaren berri , guraso elkarteari eta Harkaitz elkarteari jakinaraztea .

5.-MINISTERITZAREKIN DAGOEN BILERA PRESTATZEA.

Ministeritzak abenduaren 5erako hitzordua eman zion Baliarraingo udalari, Ibiur urtegiko obra osagarriaren inguruan bilera egiteko .

Bilerara joan behar dutenak zehaztea , nola joan diren aztertzea, akreditazioak ministeritzaren aurrean agertzeko eta bileran esan beharrekoa ere argitzea komeni da.

Gaur bertan jakin da, bilera atzeratu egin dela, Ministeritzako zuzendariaren agenda dela medio.

Beraz, gaur dakigunez, bilera abenduaren 12ean izango dela esan zaigu baina konfirmatzea eskatzen da.

6.-ALKATEAREN EBAZPENAK

Alkateak ondorengo ebazpenak eman dituela jakitera ematen da:

2018/39 PANELFISARI LOKALA UZTEA



BALIARRAINGO UDALA
(GIPUZKOA)

2018/40, ETA 41 GAEL ELKARTEARI PILOTALEKUA UZTEA

Mahaikideek jakinaren gainean geratu dira eta onartutzat eman dute .

7.-GALDERAK ETA ESKAERAK

Galdera eta eskaerarik ez da izan.

Eta besterik ezean bilera amaitutzat eman zen 21.15etan .

Alkateak

Idazkariak